

**AITA JUAN BIZENTE ZENGOTITA-BENGOA
(1862-1943).**

Bere heriotzearen 50. urteurrenean

Euskaldun santu eta apostolu honen heriotzearen 50. urteurrena dela eta, ezin haren nortasun handia gogoratu gabe utzi; gehiago oraindik, Karmel aldizkari hau Zornotzan - Markinan, Juan Bizentek heziketa hartu zuen tokietan, irteten dela kontuan hartzen badugu. Markinako Karmengo etxean irakasle eta hezitzaile izan zen; hau da, bederatzi urte inguru bizi izan zen bertako komentuan.

Misiolari handi hau aldaretako bidean da gaur egun, eta baita honen lagun minak izan ziren beste bi misiolari bizkaitar ere: Zakarias eta Aureliano.

Juan Bizente XX. mendeko euskaldun unibertsal bakanetari-ko bat dugu.

A. Bizitzako datu batzuk.

1) Hazkunde eta heziketa garaia (1862-1885).

Juan Bizente Berriz-en (Bizkaia) jaio zen 1862.eko uztailaren 19an; Francisco Zengotita-Bengoa eta Dominica Petra de Lasuen ezkontiteak izan zituzten zortzi seme-alaben arteko bigarrena izan zen.


Oso kristau giro egokia izan zuen Juan Bizentek etxean eta hurreko Mesedetako Mojen komentuan; heziketa paregabea eman zioten Sebastian Gabiola maisuak Berrizko elizateko eskolan eta Jose María Basterra parroko Jnak latineko ikastetxean. Karmeldarrekin izandako lehen harremanak Markinekoekin izan ziren, hauek Berrizen sermoiak sarritan egiten baitzituzten. Horrela aurkeztu zen 1877.eko azaroan Larrean, Karmengo Amaren jantzia 1877.eko abenduaren 1ean hartuz nobiziatuko urteari hasiera emateko; profesioa hurrengo urteko abenduaren 10ean egin zuen Juan Vicente de Jesús María izena hartuz.

Berehala joan zen Burgos-era bertan egin zituela filosofiako hiru ikasturte (1878-1881) eta gero Markinara bertako Karmengo etxean teologiako lau ikasturteak (1881-1885) egitera. 1884-1885. ikasturtearen azkenetan ikasle filosofo eta teologoak aztertzen ageri da, ikasturte horretan, Aita Bernardo de Jesús irakaslea Indiara joaterakoan beraren ikaskideen irakasle izendatua izan zelako.

Apaiz 1885.eko martxoaren 21ean sagaratu zuten Gazteizen. Markinan teologiako heziketa hartzen egin zuen aldi hori oso garrantzitsua izan zen Aita Juan Bizenterentzat, teologia ikasteaz gainera Santa Teresaren bizitza eta doktrinaz liluratu zelako, Santaren heriotze ondoko hirugarren mendeurrena (1582-1882) ospatzerakoan. Bestalde, misioetarako garra eta sua hartu zituen 1883.ean Karmeldarren euskal Probintziako 9 karmeldar Malabar-eko misiora (India) joatean, beraien artean Markinako Karmengo bi irakasle garrantzitsu egon zirela.

2) 15 urte Ordenaren eta Elizaren zerbitzuan (1885-1900).

Aldi honen ezaugarriarik nabarmenena, Nafarroako San Joakin karmeldar Probintzian izan zituen kargu ezberdinak eta burututako apostolutza iharduera bizia izan ziren, erlijio mugimendu berriak sortuz, sermolari ausarta, izpiritu zuzendari zuhurra eta Elizaren eta beraren doktrinaren defendatzaile sutsua izan zela.



Zengotita-Bengoa sendiaren armarría, bere etxean.

1885-1887. urteetan Markinan jarraitu zuen teologia irakasten: bearen ikasle gazteen artean, urte batzu geroago karmeldar probintziako gizonik ospetsunetarikoa izango ziren batzu izan zituen: Aita Ezekiel del Sagrado Corazón de Jesús, 5 aldiz Probintzial, behin Definitore Jeneral eta beste behin Ordenako Jeneral izan zena; Aita Valentín Zubizarreta, teologia dogmatikoko eskuliburuaren egile, Probintzial eta Kubako Santiago-ko artzapezpikua izan zena eta, geroago, Gaztelako probintzian bertako probintzial izango ziren beste hiru.

1887-1889. urteen artean teologiako irakasle izan zen Valentziako komentu-ikastetxean; 1888.ean komentu bereko priore izendatu zuten, adin gutxiko zelako, oraindik 26 urte zituen bakarrik, salbuespena eman ziotela.

1889.ean zatitu egin zen Nafarroako S.Joakin probintzia handia, Gaztelako karmeldarren probintzia bersortuz. Orduan Burgos-eko komentu-ikastetxeko priore izendatu zuten eta kargu horretan izan zen 1894. urterarte. Han filosofia eta teologiako hainbat ikasle izan zituen. Bertan eratu zituen «Liga Dominical» eta «Cruzada contra la Blasfemia» deituak; eta, era berean, Bilbon (1890) argitaratu zuen karmeldar hirugarrendarrentzako eskuliburua.

1894.ean berriro (1894-1896) Markinako Karmengo etxera itzuli zen karmeldar profesio-eginberrien maisu izateko. Bertan filosofiako irakasle ere izan zen (1896-1897). 1897.ean «Desierto de San José de Herrera»-ko fundazioa edo berreraikuntza proiektua burutzeko ardura hartu zuen, urte horretako martxoaren 19an ireki ondoren bertako lehen nagusi izan zela.

Baina 1897.eko maiatzean Larrean egin zen probintziako Kapituluak hirugarren aldiz Burgos-eko priore izendatu zuten, kargu horretan iraun zuela 1900. urterarte. Garai honetan katolikoaren arteko batasuna bultzatzen eta prentsa katolikoa sustatzen ageri zaigu, 1900.ean laster desagertu zen «El Eco Burgalés» egunkari berria sortu zuela; baina, apirilean, iraupena izango zuen «El Castellano», «Diario Independiente» azpizenpurua ezarriz, sortu zuen.

Une hartan beraren gogoak eta nahiak bi zereginetan jarriak zituen: prentsaren bidez katolizismoaren berreraikuntzan eta misioetarako gogo-gar bizietan.

3) *17 urte misiolari Indian (1900-1917).*

– Zenbait hilabete Manjummel-en hizkuntza ikasten egin ondoren jo eta ke ekin zion alor guztietan misio iharduera sutsuari (1901-1907): konbertsioak bultzatzen, misio egiturak eraikitzen, Ernakulam-eko Umezurztegiko eta Industri Eskolako zuzendari lanetan; 1904.ean apaizei laguntza eskaintzeko hileroko aldizkari bat sortu zuen Indiarako ezezik Asiako beste estatu batzuetarako; aldizkari horren lehen alea «Promptuarium Cano-

nicum-Liturgicum seu Ephemerides Ecclesiasticae Mensuales» izenpurua zuela urte horretako urrian atera zen; harrera oso ona jaso zuen. Ernakulam-eko komentua eraiki zuen eta misiolarienezako «egoitzak» ezarri zituen. Aldi honetan ez zuen Europa ahaztu eta bertan misiolaritza-garra bultzatzen saiatu zen.

– 1907-1915. urteetan zehar iharduera pastoralak antzinako kristau komunitateetan burutu zuen Verapoly-ko parroko ordezkaria (1907-1911), Chathiath-eko parroko-bikarioa (1912) izanik; era berean, San Alberto barnetegiko Zuzendaria zein erlijiosoen egoitzako nagusia (1912-1915) ere izan zen.


– Azken bi urteak (1915-1917) Ernakulam-eko komentuan bizi izan zituen klaustroko bizimoduko erlijiozko betebeharrak oso zehatz betetzen saiatuz.

4) 17 urte Europan eta Amerikan Misio garra pizten (1917-1935)

Garai honetan leher egin zuen bihotzean zeraman misio-garrak. Oraingoan misiolariak zein misiolarien laguntzaileak lortu nahi zituen. Oso iharduera bizi-bizi burutu zuen, hemen egingitza batzu baino ezin ditugula gogora ekarri:

– (1917-1920): Karmeldarren euskal Probintziara etorri ondoren, 1917.eko irailaren azkenaldian, Hoz de Anero-ko (Kantabria) Basamortura erretiratu zen; baina abenduan Logronion ziharduen komentu berri bat eraikitzeke ahaleginetan. «Misioen jagole» izendatu zuten eta misioen aldeko propaganda lanari ekin zion buru-belarri. 1919.eko otsailean Erromara joan zen, Verapoly-ko Misiorako Probintzilaren Bisitari gisa Indiarantz zihoala. Itzultzerakoan, Erroman, 1920.eko martxoaren 13an elkarrizketa izan zuen Aita Santu Benedikto XV.arekin. Hainbat hilabetetan ihardunez Espainiatik zehar misioen aldeko propaganda-ibilaldi bat egin zuen.

– (1920-1931); Misio-garra pizte alorrean asmotan zerabil-tzan iharduera osoaren eragile gisa 1920.ean Iruñean sortu zuen La Obra Máxima aldizkaria jarri zuen. Lehen alea 1921.eko urtarrilaren 1ean kaleratu zen. Aldizkariaren bidez



Aita Bizente Verapoly-n erretore (1908).

misio-familia handi bat sortu nahi zuen, umeengan zein adinekoengan misioen aldeko interesa sortuz.

1926.eko azaroan misio-gogoa pizteko bira bat egin zuen Ameriketarik: Uruguay, Txile, Peru eta Estatu Batuetan zehar. 1927.eko abenduan Ordenako Aita Jeneralak bere ordezkari izendatu zuen Bartzelonan egiteko zen Misio Erakustaldi Unibertsalerako (1929-1930); era berean, parte hartu zuen 1929.eko irailean Bartzelonan egin zen Estatuko Misioen Kongresuan; eta hurrengo urteko (1930) urrian «Maitasun Bihozberaren Erreoparitzarako» eskaini zuen bere burua.

– «La Obra Máxima», misioen propaganda aldizkariak egin zuen ordurako «bere etxea» Donostian (1931-1935). Misio antolakuntzan, «etxe berri» honek bere lokal zabalak zituen, horrela

aldizkariak indar berria hartu zuela. Buenaventura Arana, Vijayapuram-eko lehen apezpikuari lagun eginez, Dublin-en izan zen Nazioarteko XXXI. Eukaristia Kongresuan (1932.eko ekaina) parte hartu zuen, gertakari horretaz zenbait idazlan idatzi zituela Juan Bizentek; era berean Lisieux-eko «Kongresu Tere-siarrean» (1932.eko ekain-uztaila) ere izan zen. Data hauetan, «La Obra Maxima-ko Jagoletzak», bere etxe eta antolaketa propioa, administratzaile eraginkorra zen Aita Juan de la Cruz eta propaganda egonkorrezko egitura zuelarik ez zuen beharrezkoa misio-zaletasuna bultzatzeaz pertsonalki arduratzerik. Eta berriro gogoan Indiara misiolari joateko nahia sortu zitzaion... Baina, nahiera hutsa izan zen... 1935.eko martxoaren 21ean ospatu zituen bere abadetzaren urrezko ezteiak.


5) Apostol gaisotasunean eta zahartzaroan (1935-1943).

1935.eko maiatzean hemiplegia gaisotasunaren erasoaldia izan zuen iharduera guztiak utzi beharra ekarri ziola; gorputz erdiko elbarritasuna ekarri zion (1935-1941); erorketa baten ondorioz mokorra hautsi zuen (1941) eta ohean egon behar. Gogoetan misioak zituen, oso lasaikiro Jainkoaren borondatea oso-osoan onartuz, oinazeak eredu-zko joeraz eramanez, bere burua Maitasuna Bihozberaren Erreoparirako: guztia misioen alde eskainiz.

1943.eko otsailaren 27an hil zen Karmeldarren Donostiako komentuan, 80 urte zituela.

B.- Idazlea

Aita Juan Bizenteren literatura lan osoaren ezaugarrik nagusiena apostolutza-garra izan zen. Aldizkariak eta egunkariak sortu eta beraietan bai Euskadin, bai Espainian baita Indian hainbat idazlan argitaratu bazituen, Jainkoaren eta Elizaren maitasunak eta arimentzako su-garrak bultzaturik egin zuen, Elizaren aurkako egoera larriko garai ilun haien ondoko berreraikuntza garai hartan. Prentsan baliabide indartsua



Aita Bizente bere anai Juan eta iloba Aurea-rekin (1939).

ikusten zuen eta, orokorki, on egiteko eta, bereziki, kristauen alde erabili nahi zuen. Sinesmen Katolikoa agerian airtortzera animatzen zuen. Aitatu ditugu sortu zituen aldizkari eta egunkariak.

Asmo berdinak eraginda liburu txiki batzu idatzi zituen:

- *Carmengo anaije...* Valentzia, 1888, 108 orr.
- *Manual de los Hermanos de la Ven. Orden Tercera de Ntra. Sra. del Carmen y Sta. Teresa.* Bilbo, 1890, 163 orr. (Madrid 1898; Burgos, 1906 eta 1910).
- *Grammatica Latino-Malabarica.* Ernakulam, 1904, 116 orr.
- *Carta abierta al Rdo. P. Arintero, O.P., sobre la Contemplación adquirida.* Iruñea, 1925, 78 orr.

– *La Pasionaria de Konnersreuth*, Teresa Neumann. Iruñea, 1929, 89 orr.

– Liburuska: *Normas Canónicas de Propaganda Misional*. 1933 orr.

Amaitu gabe utzi zituen beste idazlan batzu: *Retrato del Carmelita Descalzo* eta *Contra-réplica*, kontenplazio lortuari buruz Aita Menéndez- Reigado-k eginikoari erantzuna emanaz.

Baina beraren literatur iharduerari dagokionean, Jainkoaren eta Elizaren aintzaren garrak bultzaturik hain apostolu handi eta santu izan zen honen bibliografian gogoratu dugunez, aipamen berezia merezi du hizkuntza ezberdinetan, euskaraz ere bai, idatzi zituen gutunen kopuru izugarriak, gutunek 11 liburuki handi eta sermoiak beste bost, bat euskaraz dago, osotu dituztelarik.

J.U. - P.U.